

(I)

Dena den, “kritikariei” kasu handiegia egiteko arrazoirik ez dago, eta are gutxiago euren kritikaren objektuarekin anker jokatzeko dutenean. Eta kritika egiten duten idazleak direnean, orduan zer esanik ez (eta akaso horrek niretzat ere balioko du, noizbait bapo jarri naiz-eta, horrelako kasuetan kritikari gisa baino gehiago irakurle gisa jardun badut ere).

Hemen zera gertatzen da: interesak daudela. Kritikariak kritika bat egiten dutenean halako interes jakin batekin (edo batzuekin) egiten dute, eta interes hori izan daiteke ekonomikoa, ideologikoa edo pertsonala. Egia esateko, kritikari batek –batez ere prebendak ematen dituzten horietakoa bada– zera egiten du: “Begira, irakurle maitea, liburu bat bere kabuz epaitzeko zeharo ez gauza zara. Baina zorionez ni hemen nago arazo hori konpontzeko”. Horrelaxe ikusten ditut kritikariak (bereziki gogoko ez ditudanean edota haien kritikak komeni ez zaizkidanean. Zeren, azken finean, ez al naiz alderdi interesatua afera honetan...?).

Enpresa baten (argitaletxe baten) inguruan orbitatzen duten kritikariak, boterea duen (edo boteretsu izan nahi duen) talde baten inguruan orbitatzen duten kritikariak, gizarte-banaketan euren paxtela-zatia erdietsi nahian dabilzan kritikariak, edota denok barruan daramagun Nartziso txikiaren zerbitzuan ari diren kritikariak...

Gaineratzean, badakizue Euskal Herria zeinen politizatuta dagoen. Hemen okindegira joateko ere hartzen baitira kontuan “alderdi sozio-politikoak”. Baina denetan garrantzitsuena da ez dugula ahaztu behar geure arbasoak tximinoak izan zirela, tximino “sofixtikatuak” hori bai, baina tira, mundu guztiak badaki tximinoek izugarri gogoko dutela borroka sozial eta tribaletan murgiltzea. Beraz, gu ere ez ginen gutxiago izan behar...

Esan ohi da, askotan arrazoi osoz, ezen, kritikaria obrarik gabeko artista bat dela, hau da, frustratu herratsu bat dela. Baita ere esaten da, nahiko arrazoi handiz hau ere, ezen idazle batek bere garaiko idazle baten liburua kritikatzeko duenean beti moldatzen dela bere bertuteen alde nola edo hala egiteko (alegia, batean kale eta bestean hiruzpalau bale).

Finean, bufoiarena egitean datza kontua, zeina arte handia baita, zeinagatik dauden hainbeste idazle on gutxi eta hainbeste kritikari.

Eta besterik ez, egonarri handiko irakurleok, segituan isilduko naiz, gaurkoz gehitxo hitz egin dut eta.

“Gabon eta zorte on”

II

[aurreko artikulua jarraipena]

Dena dela, aurrera begiratzea da garrantzitsuena, nik uste. Egina egina dago. Globaltasun baterantz garamatzen bidea da inportanteena, bidea (norberarena) hasten denetik amaitzen den arte. Balorazioak iritsi egingo dira. Batzuetan, beharrezkoa izaten da denboran pixka bat urruntzea (batzuk ahaztuak izatera eta beste batzuk oroituak izatera zigortzen dituen denbora-mota horretaz ari naiz, nahiz-eta funtsean den-dena iraungikorra izan, zeren, azkenean, denborak eragotzi egingo baitigu gauzen izaera, dimentsioa eta garrantzia euren zehaztasun osoan epaitzen).

Egia da kritikak zeregin bat betetzen duela, datxekion subjektibotasuna bezain egiazkoa da hori. Irakurle bakoitza bere liburuaren aurrean utzi (abandonatu) behar dela bezain egiazkoa –hark berak erabaki dezan erabaki behar duena–. Normalean, asko da liburu batek egileari eskatzen diona, batez ere denbora aldetik; aldiz, horren irakurketa ordu pare baten kontua izan daiteke eta... liburu irakurria liburu ahantzia.

Beharbada, garrantzi handiegia ematen diogu liburuari; edo, akaso, garrantzi txikiegia (hemen ere zenbat buru hainbat aburu...). Gauza guztiek (garrantzitsuenek eta zirtzilenekek) bi mutur, bi angelu dituzte zeinetatik epaitu ahal ditzakegun. Liburuak ez dira salbuespen. Hortik, hartu-eman horrextatik sortzen zaigu literaturaren alderdirik interesgarriena: dagozkion garapena, bilakaera, garrantzia eta... hutsaltasuna. Azken horretan ez dago ezer txarrik, hutsala izatea denbora- eta irizpide-kontua baita, ez da soilik zoritxar edo *ezkortasun*-kontua.

Harro sentiarazten nau literaturaren parte izateak, piramidean betetzen dudana tokia dena delakoa izan. Gailurra ezin baita sostengatu oinarririk gabe, eta erdiko alde goi- edo behe-aldea bezain garrantzitsua da. Harri bat faltako balitzaio, ez litzateke gauza bera izango. Bakoitzak bere ekarpena egiten dio zenbaki magikoen laukiari eta ikuspegi globaletik horrekek ematen dizkio nortasuna eta sinesgarritasuna ekimenari.

Normala da batzuetan norbaitek nonbaitetik leher egitea, eta normala da ere bai gu ziprizzintzea. Osotasunak ditu bi begirada. Kritikariaren begirada litekeena da irakurle soil batena baino sakonagoa izatea (izan behar luke, behintzat), horrek ezer gutxi konponduko badu ere: beti izango da irakurlea azken hitza edukiko duena.

Gainera badago halako erlazio [ia] matematiko bat: zenbat eta handiagoa liburu baten kalitatea, orduan eta irakurle gutxiago izango ditu. Hau da, une bat iristen da non irakurle handiak irakurle-masatik aldenitu egiten baitira, eta gainerako idazleengandik ere urrundu egin diren idazleen bitartez egiten dute hori (ziur aski Thomas Mann-ek ez zuen inoiz Harry Potter-rek adina irakurle izan), 30 urtez etengabe bidaiatu duen bidaiari batekin gertatzen den bezala: zer jarrera hartuko du aurreneko aldiz eta egun bakanak bidaiatzen daramatzen norbaitekin topo egiten badu? Goitik begiratuko diola, ez ordea (ezinbestez) harrokeriaz, baina bai den-dena (haren keinuak, haren begirada, haren hitzak...) besarkatzen duen bere eskarmentuaren soaz. Eta orduan baliteke bidaiari eskarmentudunak (*sentimentalak*, Calvinok esango lukeen bezala) bidaiari hasiberriarengan nolabait eragiteko tentazioa izatea: “Toki hau ezagutu behar duk, igaro ezak gaua hor, egizak hau, bisita ezak hura...” Haren aholkuak interesgarriak izan daitezke, baina beti ez da beharrezkoa haiei jarraitzea, zeren, hala eginez gero, bestearen

bidaia –hark bizi izan zuen bezala– errepikatze arriskuan eror gitezke. Baldintzatzen gaituenaz libratu nahi dugu denok, ezta? Ez dugu kortserik behar ez bizitzeko ez irakurtzeko ez bidaiatzeko ez...

Ziur aski, kritikaria bidaiari eskarmentuduna (bidaia berri bat egiteko beti prest egoten diren horietakoa) bezalakoa da, zeren bidaiarekiko ilusioa ezabatuko zen unean, bidaiaren –liburuaren– zentzua ere ezabatuko bailitzateke, eta hortik aurrera, desordenaren erdian eta batez ere, hurrengo eguna aurrekoa ez-bezalakoa izango den ziurtasunarekin (sorpresa onak zein txarrak hartzekoarekin) bizitzera ohitu denaren aurrean hustasun bat irekiko litzateke... Bai, liburuei buruz ari naiz, idazleei eta kritikariei eta garai orotako irakurleei buruz ari naiz... osotasunari eta zehaztasunei buruz, transzendenteari eta ez-transzendenteari buruz... Aldi berean egia da hitz egiteagatik hitz egiten dudala, zeren azken buruan hori baita eskrituraren benetako espiritua: ez da arrazoi jakin bati jarraiki idazten. Eta ondorioz, idaztearen (idazkuntzaren) irrazionaltasuna –gure planeta, gure jatorria, gure bilakaera eta gure etorkizun gero eta ez-ziurragoa bezain irrazionala dena– aldarrikatu egiten dut.

Armiarma-sare erraldoi batek bultzatzen gaitu. Eta elkarrekiko ezin sinesgaitzago azaltzen zaizkigun bi elementuren arteko lotura sekretu eta harrigarria topatuko bagenu, gizakia aspalditik oinazetu duten galdera askoren erantzuna topatuko genukeelakoan nago.

Eta hori guztia, kritikaren haritik.

Azken batean, halaxe gustatzen zait niri neure burua adieraztea. Taiugabeko herrarik gabe, atzerantz gehiegi begiratu gabe (sekula ahaztu beharko ez genukeen zerbait gogoratzeko ez baldin bada), nire sormenaren ekarpena eginez, kritikak ondo ala oker noraino erabili gaituen argitzea saihestuz. Sortzea. Horra gakoa. Eta zorrea ere bai, zeren literaturan, bizitzako beste hainbat arlotan bezala, *suerte* pixka bat ere behar da.

“Gabon eta eutsiok/n”